

14. eta 15. GJHen IKURRAK PLANIFIKAZIOA
DBHko 3. mailako Plastika arloa 2026-2027 ikasturtea (iraila-urtarrila)

IRAILA 14-18	
1. JARDUERA	Plastika arloan erabiltzen ditugun plastikagela.com webgunean eta Showbie aplikazioan 14. eta 15. GJHen IKURRAK proiektua eta ikas-egoerari buruzko informazioa erakustea eta azalpenak egitea: ikas-egoeraren, konpetentzien, oinarrizko jakintzen, ebaluazio-irizpideen, metodologiaren, baliabideen eta planifikazioaren azalpena egitea. Proiektuan HHko ikasle eta irakasleentzat lan egingo dugu, DBH eta HHren arteko sare soziala zabalduz. Garapen Jasangarrirako Helburuak ZER diren eta Ikastolan NOLA eta ZERTARAKO lantzen ditugun ezagutzeko, gaiari buruzko ideien zaparrada egingo dugu. Ondoren, UN Etxearen Garapen Iraunkorrerako Helburuak bideoa ikusiko dugu: https://youtu.be/IT9rJkK6WiU Talde bakoitzean landuko dugun GJHa aukeratu eta gaiari buruzko zirriborroak egiten hasi. Zirriborroetan DATA idatzi.
IRAILA 21-25	
2. JARDUERA	URETAKO BIZITZA landuko dugun taldeetan bideo hau ikusi eta aztertuko dugu: La IMPORTANCIA de CUIDAR nuestros MARES y OCEÁNOS: https://www.youtube.com/watch?v=PDJwWzH96u0&t=2s (4.14) LEHORREKO BIZITZA landuko dugun taldeetan bideo hauek ikusi eta aztertuko ditugu: ECOSISTEMAS TERRESTRES: Características y TIPOS: https://www.youtube.com/watch?v=OAn5RuUZaKw (5.11) eta ¿Qué son los BOSQUES y cuáles son sus características? Tipos, animales, árboles: https://www.youtube.com/watch?v=sRC5RbhUoEQ (11.04) Dokumentalak ikusi ondoren, URETAKO BIZITZAri edo LEHORREKO BIZITZAri buruzko ideiak marraztuz eta margotuz zirriborroak sortu, zirriborroetan dokumentalean azaldutako gaiari buruzko ANOTAZIOAK eta DATA idatziz.
IRAILA 28-URRIA 2	
3. JARDUERA	Garapen Jasangarrirako helburuak eta helmugak dokumentuan 14. edo 15. GJHa eta helmugak irakurri gaia ondo ezagutzeko, landuko dugun irudiaren gaia horietako GJH eta helmugetatik aukeratu dugu eta. 14. edo 15. GJHei buruzko ideiak marrazten eta margotzen jarraitu <i>GJHak eta helmugak</i> aplikatuz, zirriborroetan helmugei buruzko ANOTAZIOAK eta DATA idatziz.

URRIA 5-9	
4. JARDUERA	Proiektuan landuko ditugun ikusizko baliabideak azaldu eta aztertzeo ondorengo aurkezpena erabiliko dugu: <i>Ikurrak, sinboloak eta logoak</i> aurkezpena. 14. edo 15. GJHei buruzko ideiak marrazten eta margotzen jarraitu <i>Ikurrak, sinboloak eta logoen ezaugarriak</i> aplikatuz, lerroak, formak eta koloreak erabiliz eta zirriborroetan erabilitako ikurren ezaugarriei buruzko ANOTAZIOAK eta DATA idatziz.
URRIA (12) 13-16	
5. JARDUERA	Webgunean dugun <i>ZIRRIBORROAK</i> artikulua irakurriko dugu. Artikuluan azaldutakoa aplikatuz, 14. edo 15. GJHei buruzko ideiak marrazten eta margotzen jarraitu <i>Ikurrak, sinboloak eta logoen ezaugarriak</i> aplikatuz, lerroak, formak eta koloreak erabiliz eta zirriborroetan helmugei eta erabilitako ikurren ezaugarriei buruzko ANOTAZIOAK eta DATA idatziz.
URRIA 19-23	
6. JARDUERA	<i>Ikurrak, sinboloak eta logoak</i> aurkezpenaren edukiak zirriborroetan marraztu ondoren, figura-hondoaren harremana, espazio positibo-negatiboaren erabilera eta elementu desberdinen artean irudi berriak sortzearen gaia menperatzeko, <i>Ideia Sortzaileak Trebetasunez Asmatzen</i> trebetasuna landuko dugu, ikasle bakoitzak aukera originalak sortzeko matrizea osorik betez.
URRIA 26-30	
7. JARDUERA	<i>Ideia Sortzaileak Trebetasunez Asmatzen</i> trebetasuna lantzen jarraituko dugu, ikasle bakoitzak aukera originalak sortzeko matrizea osorik betez. Zirriborroak egiten jarraitu eta helmugei eta erabilitako ikurren ezaugarriei buruzko ANOTAZIOAK eta DATA idatziz.
AZAROA (2) 3-6	
8. JARDUERA	14. edo 15. GJHei buruzko ideiak marrazten eta margotzen jarraitu <i>Ikurrak, sinboloak eta logoen ezaugarriak</i> aplikatuz, lerroak, formak eta koloreak erabiliz eta zirriborroetan erabilitako ikurren ezaugarriei buruzko ANOTAZIOAK eta DATA idatziz.

AZAROA 9-13	
9. JARDUERA	Prozesuan zehar egindako lanaren autoebaluazioa egitea: zirriborroak eta anotazioak aztertuko ditugu, irudiotan helmugen eta ikurren ezaugarrien identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez. Planteatutako hasierako ideiak lortzeko, zirriborroetan ikurren ezaugarriak era egokian erabili diren aztertuko dugu. Autoebaluazioa egiteko UN Etxearen 14. edo 15. GJHei buruzko bideoa ikus dezakegu, irudiaren mezua landutako helburuarekin bat datorren ziurtatzeko. Autoebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, planteatutako ideiak era egokian lortzeko ikurren ezaugarriak era egokian erabiliz.
AZAROA 16-20	
10. JARDUERA	Proiektuan zehar momentura arte egindako irudien bilduma kronologikoki antolatzea, egindako lanaren argazkiak egitea, editatzea eta Showbiera (Como Documento) eta era egokian izendatuta bidaltzea: Abizenalzena_ZIRRIBORROAK. Zirriborroak egiten jarraitu azken emaitza diseinatuz eta erabilitako ikurren ezaugarriei buruzko ANOTAZIOAK eta DATA idatziz.
AZAROA 23-27	
11. JARDUERA	Zirriborroak egiten jarraitu azken emaitza diseinatuz eta ANOTAZIOAK eta DATA idatziz. Azken emaitza sortzen hasi.
AZAROA 30-ABENDUA 2 (3+4)	
12. JARDUERA	Azken emaitza digitalki nola egin azaldu: paperean egindako irudian oinarrituta, Sketchbook aplikazioa erabiliz irudia digitalizatzea. Azken emaitza bukatu eta aurkeztu. Paperezko azken emaitza bukatu duten ikasleek irudi digitala egingo dute.
ABENDUA (7+8) 9-11	
13. JARDUERA	Paperezko azken emaitza bukatu, aurkeztu eta irudi digitala egin.

ABENDUA 14-18	
14. JARDUERA	Azken emaitza digitala bukatu eta honen bertsio desberdinak egin, koloreak aldatuz, formak kenduz edo gehituz eta abar.

ABENDUA 21-22	
15. JARDUERA	Portafolioa egitea: proiektuan zehar egindako irudien bilduma kronologikoki antolatu ondoren, eta paperean egindako lanaren argazkiak eginez eta editatuz, portafolio digitala nola egin azaltzea, ereduak ikusiz eta aztertuz. Hauek dira portafolioak izan behar dituen atalak: 1. Izenburua eta izen-abizena, ereduaren formatua, letra mota, tamaina eta itxura errespetatuz. 2. Irudiak kronologikoki sailkatuta: zirriborroak anotazioekin, azken emaitza paperean eta irudi digitalak. Paperean egindako lanaren argazkiak egin eta editatu ondoren, portafolio digitala Keynote aplikazioan sortzea. Ikasleek portafolio digitalaren aurkezpenaren eredu Showbien izango dute, bertatik Keynote aplikazioan deskargatuko dute, eta paperean egindako lanaren argazkiak eta irudi digitalak erabiliz portafolio digitala Keynote aplikazioan osatuko dute eta Showbiera pdf formatuan bidaliko dute era egokian izendatuta: Abizenalzena_PORTAFOLIOA. Portafolioa bukatu duten ikasleei irudi gehiago egiteko aukera emango zaie irudi hauek portafolioan txertatuz.

URTARRILA 7-8	
16. JARDUERA	Portafolioa bukatu duten ikasleei irudi gehiago egiteko aukera ematea irudi hauek portafolioan txertatuz. Lerro bakarreko irudia: DIFFERANTLY webguneko irudiak, diseinuak eta hauen sortze prozesua ezagutu eta aztertu. Ikurra lerro bakarrez adierazi.

URTARRILA 11-15	
17. JARDUERA	Portafolioa bukatu duten ikasleei irudi gehiago egiteko aukera ematea irudi hauek portafolioan txertatuz. Lerro bakarreko irudia: DIFFERANTLY webguneko irudiak, diseinuak eta hauen sortze prozesua ezagutu eta aztertu. Ikurra lerro bakarrez adierazi.

URTARRILA 18-22

18. JARDUERA

Ikasleek euren kideei eta irakasleari proiektua eta azken emaitza aurkeztea talde osoko bileran. Proiektuaren aurkezpena egiteko portafolio digitala proiektatuko dute.